

EUSKERA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2019



Bilbao

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

ARTE BIZIAK / ANTZERKIA OTS. 24 (iga.)

Xake Produkzioak

Lur



Gauza bakarra eskatzerik bazenu, zer eskatuko zenuke?

Zinegoak Bilboko Gaylesbitrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiaren 16. edizioak, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao lankide duela, Xake Produksioak taldearen Lur aurkeztuko du, trans pertsonen bizipenei buruzko antzezlan, familiei begira sortua.

Kepa Errastik idatzi du eta Getari Etxegaraiak zuzendu du *Lur*, eta Aneren abentura kontatzen du: Ane trans haurrak aitonaarekin batera izar magiko baten bila bizitakoa. Txikiengatik pentsatutako kontakizun bat da, baina helduentzat ere oso gustagarria. Errastik Chrysallis adingabe transexualen familien elkarrearen laguntza izan du gai delikatu honi buruz idazteko, betiere sentimenduen eta emozioen ikuspegitik.

«Oso egoki publikoki adierazi duten bezala antzezanaren gaia ez da hainbeste haur transexualitatea, baizik eta norbera den bezala maitatua eta onartua izatearen beharra. Eta barneak mugitu zizkigun guri, bai, gure elkarteko familietako bizipen asko oso modu zehatz eta argian islatzea lortu dutelako taularatutako istorioan. Aukera baduzue, ez galdu harribitxi hau!». Chrysallis Euskal Herria elkartea

Chrysallis 18 urtetik beherako trans pertsonen familiak biltzen dituen elkartea da, eta haren helburuak dira modu argi eta ulergarrian azaltzea haurtzaroko eta gaztaroko transexualitatearen fenomeno eta fenomeno hori normalizatzen laguntzea pertsona dibertsoez osaturiko gizarte batean.



Otsailak 24, igandea

**12:00
Auditorioa**

**8€ / 6€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Infopuntua eta
www.azkunazentroa.eus**



FITXA TEKNIKOA

Talde artistikoa:
Erika Olaizola, Mikel Laskurain, Kepa Errasti, Nerea Gorriti

Zuzendaritza:
Getari Etxegarai

Zuzendaritzako laguntzailea:
Xabier Ormazabal

Argiteriaren diseinua:
David Alcorta

Musika-konposizioa:
Pascal Gaigne

Eszenografiaren diseinua:
Eider Ibarrondo eta Isabel Acosta



 www.xakeproduksioak.eus

 www.zinegoak.com

